

B24

Jaquiçu bada, gura badoçu...

Poema-zati hauek B16 poemarekin erlazionatu behar ditugu. Izan ere, ziur aski, B16: 100 bertso-lerroaren jarraipena izateko idatzi dira. Gaztelaniaz *quintilla* deitzen den ahapaldi motakoak izateko sortu ziren (bost bertso-lerro oktosilabo, abaab errima-egiturarekin), baina zirriborro hutsean geratu dira, aurrekoarekin eta ondokoarekin lotura sendorik gabe. Hortaz, nahiago izan dugu horrela aurkeztu, zirriborro edo poema-zati gisa, beren fragmentariorotasunean, lotura artifizialik egin gabe.

Edukiari dagokionez, A8 poemarekin erlazionatu behar da, hemengo *casarás y amansarás* atsotiz ezaguna beste hartan ere euskaraz glosaturik baitago: *ezcon baçatez, eongo çara / ardia leguez mansaric*. Baina A8 andrazkoari dagokio, eta beste hau, berriz, gizonezkoari (*donzella bigaz ezconquetan* B24: 7); alde horretatik, deigarria da A24 poemarekin duen antzekotasuna ere: *Aide andioc bidaldu deustae / escreviduric cartea / ezcondu gura ninduqueela. / Ene gogoco tristea* (A24: 1-4).

<1201r>

21

[...]

Jaquiçu bada, gura badoçu

ene penaoc curadu.

Aideoc deseacen dave

lecu onera guiaetan;

ciertu¹ procuracen bave:²

5

birretan erabildu³ nave

donzella bigaz ezconquetan.

¹ *ciertu*: ‘benetan, egiazki’; cf. Lcc “ciertamente, *cierto*”.

² *bave*: ‘badabe; dabe zinez, dute zinez’; baiezkoa da.

³ *erabildu*: ‘erabili, nahasi’; cf. Lcc. “Colear, mover la cola, *buztaiña erabildu*”.

*Casarás y amansarás*⁴

parebaga aren baleu ni

querellea asecauaz

10

çuc ba[...]ta

gora dey ene pena pozez.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Ondoren datozen lerroak B16 poemako 20. ahapaldiaren ondoren idatzita daude, eskuineko zutabearen, eta 1-20 ahapaldiak (B16: 1-100 bertso-lerroak) idatzi dituen esku eta tinta berak idatzi dituela dirudi. **1** 21 zenbakiaren azpian 7 bertso-lerro daude, baina argi dago zein diren gainerako ahapaldien egitura duten bost bertso-lerroak; beste biak (B24: 1-2) beste ahapaldi baten zatiak izan behar dira, ezinbestean; ahapaldi-egituraren arabera, berdin izan liteke aurretik faltatzea hiru bertso-lerro edo ondoren faltatzea. **3** deseacen] *procurazen* ezabatu ondoren lerroartean idatzita dago. **9** parebaga] hemendik aurrerakoa ez da ondo irakurtzen, eta nabarmenki ahapaldiaren zirriborroa baino ez da, amaitugabea. || aren] *arere* ere izan liteke. **10** asecauaz] -z ez dago argi. **11** çuc] esk. *cuc*. || ba...ta] erdiko silaba ez da irakurtzen. **12** dey] ez da ondo irakurtzen. || pozez] azken bi letrak ez dira ondo irakurtzen.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B24 – Jaquiçu bada, gura badoçu...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

⁴ *Casarás y amansarás*: XVI. mendeko atsotitz-bildumetan ondoko hau agertzen da: “Juanica la pelotera, casarás y amansarás y andarás queda”. Gogoratu, bestalde, A8 poeman aipatu dugun Gutierre de Cetinaren glosa, hain zuzen bertso-lerro honetan oinarriturik eraikia.



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago